

P 1049774 B

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEKTORAK
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa

EUSKARIA FUNDAZIOAREN ESTATUTUAK: -----

I. TITULUA.- ARAU OROKORRAK. -----


1. Artikulua.- Eraketa, izena eta iraupena. ---

FUNDACIÓN EUSKARIA/EUSKARIA FUNDAZIOA izeneko fundazioa eratzen da, ekainaren hamazazpiko 12/1.994 Legearen eta indarrean dauden gainontzeko arauen arabera. -----

EUSKARIA FUNDAZIOA, irabazi asmorik gabeko erakundea da eta, bere sortzaileak hala nahita, erakundearen ondarea era iraunkorrean lotuta dago Estatutu hauetako 3. Artikuluan deskribatutako interes orokorreko helburuak lortzera. -----

2. artikulua.- araubide, nortasun eta gaitasun juridikoa. -----

Fundazioak berezko nortasun juridiko independentea dauka eratze eskritura Euskal Herriko Fundazioen Erregistroan inskribatu zenetik. Gaitasun juridikoa zein jarduteko gaitasun osoa izango du. Gaitasun horien muga bakarrak honako hauek izango dira: Eratzaileek eratze egintzan




adierazitakoak, Estatutu hauek ezarritakoak, eta oro har, aplikagarriak diren legeek adierazitakoak, bereziki ekainaren hamazazpiko Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen 12/1.994 Legeak.-----

Horrenbestez, Euskaria Fundazioak honako egintza hauek egin ahal izango ditu, Protektoratuari egin beharreko jakinarazpenen kalterik gabe: era guztietako ondasun higigarri zein higiezinak eta eskubideak eskuratu, gorde, eduki, erabili, besterendu eta horiek zamatuz; era guztietako egintzak eta kontratuak burutu; maileguak jaso eta kitatu; administrazioaren aurrean edo epaitegietan era guztietako akzioak edo salbuezpenez egikaritu eta auzibide horietan atzera egin, edozein de la epaitegia, auzitegia edo erakunde publikoa edo pribatua, beti ere ordenamendu juridikoak ezarritakoaren arabera.----

3. Artikulua.- Fundazioaren helburuak.-----

EUSKARIA FUNDAZIOAREN helburuak hauek dira: Euskal herritarron interes moral eta materialak eta, euskaldun guztion etxea den aldetik, Euskal Herriaren ideia aztertu, zaindu, sustatu, burutu, lagundu, finantzatu, defendatu, etab.-----

Helburu zabal horien artean, jarduera zehatz



FORO SAILUA
GOBERNO V. SCO

JUSTIZIA, LAN ETA
GARAPEN BERRANTZA SAILA
Eusko Legebiltzararen Erregistroa
Eusko Legebiltzararen Erregistroa
Eusko Legebiltzararen Erregistroa


P 1049773 B

garrantzitsu eta berehalako hauen helduko die,
betiere batzuk aipatzeko eta mugatzaile izan gabe:

a) Euskal Herriaren bilakaera,
bideragarritasuna eta etorkizunari buruzko
azterketa eta proiektuak sustatu, burutu eta
finantzatzea, izan ere Euskal Herria herri den
aldetik (herri izateko osagaiak baititu: kultura,
herritarrak, instituzioak eta lurraldea) eskubideen
subjektu subiranoa baita, XXI. mendeko Europak
eskaintzen duen eskenatokian. -----

b) Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean eta
gainontzeko Nazioarteko Hitzarmen eta Itunetan
agertutako balio unibertsalak zabaltzea, eskubide
indibidual eta kolektiboek dagokienez. -----

c) Lehiaketak, Biltzarrak eta Foroak antolatzea
eta horrelakoetan parte hartzea. Halaber, Euskal
Herriaren bilakaera sozialean, politikoan,
ekonomikoan edo kulturalen parte hartzen duten
subjektuen arteko eztabaidak eta elkarriketa
bideak antolatu eta horietan parte hartu. -----



d) Euskal Herriaren interes moral eta materialak bultzatu edo laguntzeagaitik edo, euskaldun guztien etxea den aldetik, Euskal Herria defendatzeagaitik jazarritako edo diskriminatutako pertsona fisiko edo juridikoak defendatu, lagundu edo finantzatu.-----


e) Komunikabide idatzi, erradioelektriko, ikus-entzunezko edo informatikoetan parte hartzea sustatu fundazioaren helburuak zabaldu eta garatzeko, baita aldizkari, buletin, liburu eta argitalpenak plazaratu ere.-----

f) Euskal Herriko diasporako pertsona eta erakundeekin informazio bideak ezarri eta eduki, Euskal Herriaren gizarte errealitatearen eguneratutako berri jaso dezaten eta bertan geratzen deiren gizarte prozesuetan integratu eta parte hartzeko aukera izan dezaten.-----

g) Fundazioaren helburuekin bat datozen jarduerak garatzen dituzten erakunde eta pertsonen aldizkako dohaintza edo diru-laguntzak ematea, baita bekak edo laguntzak eta sariak ere.-----

h) Baliabideak lortzea.-----

i) Beste edozein, betiere aipatutako helburuak burutzera bideratuta daudenean.-----



P 1049772 B

4. Artikulua.- Helburuen garapena. -----

Fundazioak egokien deritzon eran garatu ditzake Fundazioaren helburuak, baita beste entitate eta erakundetan parte hartzearen bitartez ere, eta muga bakarrak eratze agirian, Estatutu hauetan eta betie ere Legeetan ezarritakoak dira. -----

5. Artikulua.- Egoitza. -----

Fundazioaren egoitza honako helbidean egongo da: Getxon, Algorta auzoko Telletxe kalearen bosgarren zenbakian, 1-L Lonjan. Patronatuak egoitza aldatzea erabaki dezake era librean, eta Fundazioen Erregistroan jakinarazi beharko da. Halaber, Patronatuak ahalmen osoa du erabakitzeko egoitzak, ordezkaritzak edo bulegoak non jarri, Fundazioaren helburuak betetzeko horretarako beharrik egonez gero. -----

6. Artikulua.- Lurralde eremua. -----

EUSKARIA FUNDAZIOAK bere jarduera batez ere Euskal Herrian beteko duen arren, euskaldunek presentzia duten Diasporako herrialdeetan ere

zabalduko du.-----


7. Artikulua.- Onuradunak.-----

1) Fundazioaren prestazioen onuradunak izango dira Patronatuak jasotzea merezi dutela uste dituen pertsona fisiko eta juridikoak.-----

Zehazki, onuradunak aukeratzeko, Patronatuak kontuan hartu beharko du, pertsona juridikoak direnean, Fundazioaren helburuetan agertutakoen antzeko jarduerak garatzen dituzten Instituzio eta Entitateak, baita prestigio dutenak ere.-----

Pertsona fisikoen kasuan, Fundazioak bere onuradunak aukeratzeko ditu Fundazioaren helburuetan agertutakoen antzeko jarduerak garatzeagaitik nabarmendu direnen artean, kontuan hartuz eskatzaileen meritu eta gaitasuna. Azterketa eta ikerketa lana ere sustatzeko ditu laguntza ekonomiko, material eta azpiegiturazkoaren bitartez. Fundazioaren onuradunak izango dira, halaber, artikuluko honek hizpide hartu dituen entitate edo pertsona fisikoek zuzendutako lantaldeak.-----

2) Fundazioak edo Patronatuak norbaiti onurarik ematea onartu baino lehen, ezin izango dio inork Fundazioari onura jasotzeko eskubidea duela



JUSTIZIA, LANETA
GIORGIO SE MURATZA SAILA
Euzko Leizor Euzko Leizor
Dakizkizue, Euzko Leizor

3) Betiere, fundazioak interes orokorreko bere helburuen barruan, objektibotasun eta inpartzialtasun irizpideen arabera jokatu beharko du onuradunak aukeratzerakoan, eta ezin izango du diskriminaziorik eragin. -----

Fundazioaren helburuekin loturarik ez duten pertsonak, ezingo dira bere prestazioen onuradunak izan. Orobat, ezin izango dute Fundazioaren prestazioak jaso fundatzaileek, euren ezkontideek edo laugarren gardurainoko senitartekoek.-----

8. Artikulua.- Publizitatea. -----

Onuradunek eta interesatuek Fundazioaren ekintzak ezagutu dezaten, Patronatuak behar besteko publizitate emango die bere helburu eta jarduerai.

II. TITULUA.- PATRONATUA. -----

1. ATALA.- OSAKETA ETA ESKUMENAK. -----

9. Artikulua.- Patronatua. -----

Patronatua, fundazioaren gobernu, administrazio
eta ordezkaritzarako organo gorena da, eta bere
gain izango ditu fundazioaren helburuak burutzeko
beharrezkoak diren fundazioaren zuzendaritza eta
kudeaketaren kontrolerako ahalmenak. Zehazki,
fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta
eskubideak administratuko ditu.-----

10. Artikulua.- Osdaketa eta Iraupena.-----

Patronatua, gutxienez hiru kideez osatuko da
eta gehienez, hamabi kidez.-----

Patronatuko karguak iraupen iraunkorra izango
du.-----


11. Artikulua.- Patronatukideak izendatzea eta
utzitako hutsuneak betetzea.-----

Lehenengo Patronatua, eratzaileek izendatuko
dute eraketa eskrituran.-----


Patronatukide berriak, kide kopurua handitu
delako edo kideak aldatu behar direlako,
Patronatuak izendatuko ditu gutxienez kideen bi
herenek hartutako akordioaren bitartez.-----

12. Artikulua.- dohakotasuna.-----

Patronatuaren kideek euren karguan dohan
jardungo dute. Hala ere, euren zereginengatik
sortutako gastuak ordaindu ahal izango zaizkie,



P 1049770 B



BEKAKO FORU ALDUNDIA
DIRECCION FORAL DE BEKA
BEKAKO FORU ALDUNDIA

betiere behar bezala frogatuta daudenean.-----

13. Artikulua.- fundazioaren lehendakaria. ----


Patronatuak bere kideen artean Lehendakari bat aukeratuko du, eta berari dagokio Patronatua biltzera deitzea -bere ekimenaz edo gutxienez kideen heren batek hala eskatuta-, deliberazioak zuzentzea eta bere akordioak betearaztea.-----

Patronatuaren lehendakariak gobernu organoaren ordezkaritza gorena izango du. Organo horretako kide izateagaitiko eta Estatutu hauek egotzitako ahalmenez gain, berari dagokio ere fundazioa ordezkatzeko Patronatuaren akordioetatik eratorritako ekitaldi eta kontratu guztietan, baita sortzen diren administrazio edo gobernu auzi, espediente zein gaietan, judizial zein estrajudizial izan. Gainera, Prokuradore edo Abokatuei auzietarako botere orokorrak emateko ahalmena izango du.-----

14. Artikulua.- Lehendakariordea.-----

Patronatuak bere kideen artean Lehendakariordea

C



aukeratu ahal izango du, betiere kideen
gehiengoaren botoekin hautatua.-----

Lehendakariordeak lehendakaria ordezkatzeko du
azken hau ez badago edo gaixo egotekotan, eta hori
frogatzeko, adieraztearekin nahiko izango da.
Lehendakaria edo lehendakariordea ez badago, adin
zaharreneko kideak ordezkatzeko du.-----

15. Artikulua.- Idazkaria.-----

Patronatuak aukeratu ahal izango du Idazkari
bat kideen artetik edo kanpotik, fundazioaren
administrazio lanen zuzendaritza hartu, bere
dokumentazioa zaindu, saioen akta jaso eta,
onartutakoan, Akta Liburua transkribatzeko, betiere
Lehendakariak onartu eta ontzat eman ostean.-----

16. Artikulua.- Diruzaina.-----


Patronatuak aukeratu ahal izango du,
beharrezkotzat jotzen badu, Diruzain bat kideen
artetik edo kanpotik Patronatuak egotzitako
zereginetarako.-----

Diruzainari egotzi ahal zaizkion zereginak
hauek izango dira:-----

- 1) Fundazioaren fondoak bildu eta zaintzea.---
- 2) Diru sarrera eta gastuen balantzea aurkeztu
eta izenpetzea.-----



P 1049769 B



JUSTIZIA, LAN ETA
EKOLOGIA
D. G. DE JUSTIZIA SAILA
D. G. DE LAN ETZA SAILA
D. G. DE EKOLOGIA SAILA
D. G. DE KULTURA SAILA
D. G. DE HEZKUNTZA SAILA
D. G. DE ENBIA SAILA
D. G. DE ENBIA SAILA

3) Inbentario, kontu, Aurrekontu- eta Egunkari
Liburuen ardura edukitzea. -----

17. Artikulua.- Fundazioaren zerbitzuko
langileak. -----

Halaber, Patronatuak gobernu organoaren kide
bati edo gainontzeko bati egotz diezaioke
Fundazioaren izenean egindako gerentzia, kudeaketa
edo beste jardueren ardura, eta horretarako,
zeregin horietarako egokia dena ordainduko zaio. --


18. Artikulua.- Patronatuaren eskumenak. -----

Patronatuaren eskumenekoa da fundazioaren
gobernuari dagokion guztia, eta batez ere, gai
hauek: -----

1) Fundazioaren norabidea zehaztu, helburuak
hobeto betetzeko. -----

2) Baliabide ekonomiko eta finantziario guztiak
administratzea, euren jatorria edozein de la ere. -

3) Inbentarioa, Egoeraren Balantzea, Emaizten
Kontua eta aurreko akitaldiaren Memoria onartzea,
eta aldi horretako diru-sarrera eta gastuen



aurrekontua likidatzea.-----

4) Hurrengo ekitaldiko diru-sarrerak eta gastuen aurrekontua onartzea, baita azalpenerako Memoria ere.-----

5) Barne araudiko arauak onartzea.-----

6) Eskuordetutako Batzordeak sortzea, horietako kideak izendatzea eta euren ahalmenak zehaztea eta ahalduntze orokorrak edo bereziak ematea, hurrengo artikuluan xedatutakoaren arabera.-----

7) Zuzendariak, exekutiboak eta aholkulariak izendatzea, baita beharrezko beste langile tekniko, administratibo, laborala eta subalternoak kontratatzea, Estatutuen 17. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.-----

8) Era guztietako egintzak eta kontratuak burutzea eta onartzea, izaera zibil, laborala, administratibo, merkataritza- eta beste mota batekoa izan.-----

9) Eskumenak dituzten erakundeei dagozkion proposamenak egitea, haien akordioa behar den gaian.-----

10) Lankidetzaren tekniko eta langile kualifikatuen prestakuntzarako programetan, enpresa, entitate, organismo edo partikularren



P 1049768 B



partaidetza sustatzea, efondoak garritz eta
lankidetzak hitzarmene bitartez. -----


11) Oinordetzak, legatuak edo dohaintzak onartu
edo uko egitea, betiere fundazioarentzat egokia de-
la baderitzote. Erabaki horiek beti
Protektuoratuari jakinarazi behar zaizkio. -----

12) Fundazioaren Estatutuak aldatzea,
fundatzaileen borondatea hobeto betetzeko
beharrezkoa bada. -----

19. Artikulua.- Eskuordetzeak, ahaldundutako eta
Eskuordetutako Batzordeak. -----

Patronatuak bere kideetako bati eskuordetu ahal
izango dizkio ahalmenetako bat edo batzuk,
honakoetan izan ezik: kontuak zein aurrekontuak eta
kudeaketa arruntetik kanpoko egintzak edo
Protektuoratuaren baimena behar dutenak. -----

Aurreko paragrafoan adierazitako mugak kontuan
hartuz, Patronatuak, Eskuordetutako Batzordeak eta
Batzorde eragileak eratu ditzake, eta erabakitzen
diren ahalmenak izango dituzte. Gainera, ahaldundu



orokorrak edo nagusiak izendatu ahal izango ditu, funtzio erkidetu edo solidarioak edukiz.-----

Eskuordetze eta ahalduntze orokorrak, auzietarak izan ezik, eta horiek baliogabetzea, fundazioen Erregistroan inskribatu beharko dira.--

20. Artikulua.- Patronatuaren betebeharrak.---

Fundazioko patronatuaren kideak honakoetara behartuta daude:-----

a) Fundazioaren helburuak zorrozki bete eta betearaztea, Legean eta Fundazioaren Estatutuetan xedatutakoaren arabera.-----

b) Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratzera eta horien produktibitateari behar bezala eustera, kudeatzaile on baten ekonomi eta finantza irizpideen arabera.-


c) Kargua, lege ordezkari baten prestasunarekin betetzera.-----

21. Artikulua.- Autokontrataziorako debekua.--


Patronatuaren kideek ezingo dute fundazioarekin kontraturik izenpetu, ez norbere izenean ez beste batenean, salbu eta Protektoratuak baimena ematen badu.-----

22. Artikulua.- Erantzunkizuna.-----

1) Patronatuko kideak erantzuleak dira



P 1049767 B



Fundazioaren aurrean Leggek zehaztutakoaren arabera. -----

2) Erantzunkizunik ez dute izango: Erantzunkizuna sortu duen akordioa hartzeari uko egin ziotenek edo akordioa hartzen parte hartu ez zutenek, salbu eta frogatzen bada ezagutzen zutela eta desadostasunik azaldu ez zutela. -----

3) Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira, jurisdikzio arruntaren aurrean, gobernu organoen erantzunkizuneko demanda judizialak eta dagozkion epai irmoak. -----

4) Protektoratuak heldu ahal dio erantzunkizun ekintza horri bere ekimenaz, edo interes legitimoa duen edozeinek egindako arrazoizko eskaeraz. Fundatzaileek ere ekintza horri heldu ahal izango diote Patronatuko kideen jarduera Fundazioaren helburuen kontrakoa edo horietarako kaltegarria denean. -----

2. ATALA.- PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDURAKO ARAUBIDEA. -----



23. Artikulua.- Barne funtzionamendua.-----

Patronatuak gutxienez hiru bilera egingo ditu urtero. Lehenengo seis hilabeteetan halabeharrez bilduko da honakoak onartzeko: aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, inbentarioa, Jardueren Memoria, aurreko ekitaldiaren egoera balantzea eta Emaizten kontua, betiere Estatutu hauetako 30. artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Era berean, laugarren hiruhilabetetan, dagokion deialdia egin ostean, hurrengo ekitaldiko aurrekontua onartuko da, eta protektoratuari bidaliko zaio abenduaren 31 baino lehen.-----

Patronatuaren bilera-deialdiak idatziz egin beharko dira, eta bertan gai zerrenda agertu behar da. Azken hau, Lehendakariak erabakiko du gobernu organoaren kideen iradokizunak kontuan hartu ostean. Deialdia, bilera bata baino gutxienez 10 egun lehenago egingo da, premiazko kasuetan izan ezik. Horrelakoetan, epea 3 egunekoa izan daiteke.

24. Artikulua.- Eraketa eta akordioak hartzea.

Patronatua balioz eratuko da lehenengo deialdian bere kideen bi herenak, pertsonalki edo ordezkaturik, bertaratzen direnean.-----

Aurreko paragrafoan adierazitako quoruma



P 1049766 B

JUSTIZIA, LAN ETA
GIZ. R. E. SECURITATZA SAILA

Elkarrizketen Erregistroa
Bilbao, 1980ko Azaroaren 14a

lortzen ez bada, Patronatua ordubete geroago
bilduko da, eta bigarren bilera horretan nahikoa
izango da edozein kide kopuru egotea, betiere
kideen erdia eta Lehendakari edo Lehendakariorde
titularrak badaude. -----


Aurreko paragrafoetan adierazitakoaz gain,
Patronatuak, deituta dagoela ulertuko du eta balioz
eratu egingo da bere kide guztiak bertaratzen
direnean eta aho batez bilera egitea adosten
dutenean. -----

Akordioak botoen gehiengoaz hartuko dira,
honako kasu hauetako batean izan ezik: -----

1) Aldatu beste fundazio batekin bat egiteko
akordioa edo fundazioa desegiteko akordioa
bertaratutakoen bi herenen aldeko botoa behar
baita. -----

2) Beste edozein, Estatutu hauetan bozketarako
bestelako quoruma ezarrita daukanean. -----

Lehendakariaren botoak, gerta daitezkeen
berdinketak ebatziko ditu. -----



Patronatuaren bilera bakoitzean, Idazkariak dagokion akta jasoko du, eta bertan, bileraren tokia eta eguna zehazteaz gain, nor bertaratu den, eztabaidako gaiak zeintzuk izan diren eta hartutako akordioen edukia adieraziko dira.-----

III. TITULUA.- ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA.

1. ATALA.- OSAKETA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAINKETA.-----

25. Artikulua.- Fundazioaren ondarea.-----

Fundazioaren ondarea, era guztietako ondasunez eta balorazio ekonomikoa eduki dezaketen eskubidez osotuta egon daiteke.-----

Fundazioa, bere xedapen eta administrazio egintzetan, aplikagarriak zaizkion arauen menpe egongo da, eta bere emaitza edo errentak, berezkoak dituen helburuetara bideratuko ditu, betiere Estatutu hauen arabera.-----

26. Artikulua.- Baliabideak.-----


Fundazioaren ondarea hauek osotuko dute:-----

a) Eratze eskrituran agerturiko hasierako suskidura.-----

b) Kide fundatzaileen (eta geroago bazkidetuen) ekarpen eta kuotak, arruntak eta apartekoak, eta Patronatuaren kideek, euren borondatez, ordaindu



P 1049765 B



nahi duten kuota eta ekarpenak. -----


c) Zuzenbideak onartutako baliabideen bitartez, geroago erosiko lukeen beste edozein ondasun edo eskubide, batez ere beste pertsona edo erakunde batzuek emandako legatuen, dohaintzen, ekarpenen eta diru-laguntzen bitartez. Dohaintza, legatu eta herentziak onartzeak Protektoratuari jakinarazi behar zaizkio. -----

d) Ondarearen eta fundazioak burututako jardueren emaitza edo errentak, produktu edo etekinak, baita eman ditzakeen zerbitzuengatik kobratutakoa, indarrean dagoen legeriaren arabera.

e) Aplikazioko legediaren beste edozein baliabide. -----

27. Artikulua.- Ondarearen aldaketak. -----

Fundazioaren patronatuak, une orotan, eta egoera ekonomikoak hala eskatzenbadu, fundazioaren kapitalaren beharrezko aldaketak, transformazioak edo bihurketak burutu ditzake. Horren helburua da kapitalak, balio nominalari eusteaz gain, bere


benetako balioa edo erosteko ahalmena gordetzea edo
ez galtzea.-----

28. Artikulua.- Fundazioaren ondarea zaintzea.

Fundazioaren ondarea zaindu eta gordetzeko
honako arauak errespetatu beharko dira:-----

a) Fundazioaren ondarea osatzen duen ondasun
eta eskubideak fundazioaren izenean egon behar
dira, eta beti ere bere inbentarioan egon behar
dira.-----

b) Ondasun higiezinak edota eskubide errealak,
fundazioaren izenean inskribatuko dira Jabego
Erregistroan. Inskribatu behar diren gainontzeko
ondasunak, dagozkion erregistroetan inskribatuko
dira.-----


c) Baloreak eta eskudirua, jabetza tituluak,
gordailuen frogagiriak eta fundazioak beste edozein
eskubideren jabetza, edukitza, erabilera edo
gozamina duela frogatzeko agiriak Patronatuak
zehazten duen erakundean gordeko dira Fundazioaren
izenean.-----

d) Bestelako ondasun higigarriak, Patronatuak
zehaztutako eran zainduko dira.-----

Ondasun eta eskubide horiek guztiak
Inbentarioen Liburuan adieraziko dira eta berau,



P 1049764 B



JUSTIZIA, LAN ETA
GORTA SEKTORIA SAILA
Foral De Bekaia

Patronatuko idazkariaren esku izango da. Gainera, bertan, idazkariaren ikuskaritzapean, horiek identifikazteko eta deskribatzeko baldintza zehatzak jarriko dira idatziz. -----

2. ATALA.- ARAUBIDE EKONOMIKOA. -----

29. Artikulua.- Ekitaldi ekonomikoa. -----

Ekitaldi ekonomikoa uretebetekoa izango da eta urte naturalaren berbera izango da. -----

Fundazioak aurrekontu arrunt bat osatuko du ekitaldi ekonomiko bakoitzerako, bertan diru-sarrerak eta gastuak era orekatuan bilduz. -----

Aurrekontu hori, Protektoratuari aurkeztuko zaio aonrpen urteko azken hiruhilabeteen, Azalpeneko Memoria batekina batera. -----

30. Artikulua.- Betebeahr ekonomikoak eta kontabilitatezkoak. -----

Patronatuak inbentarioa, egoera balantzeta eta emaitzen kontua osatuko du, eta horietan, Fundazioaren ondare, ekonomia eta finantzen egoera agertuko da. Osatuko du, halaber, urtean zehar

134-
GO.
JUST.
GIZARTE
Euskal Herria
DEPARTAMENTO

burututako jardueren eta ondarearen kudeaketa ekonomikoaren momeoria bat, fundazioaren helburuak ezagutarazi eta le arauak betetzen direla frogatzeko. Aurreko urteko diru-sarrera eta gastuen aurrekontuaren likidazioa ere egingo du, hartara legearen aginduak betez.-----

31. Artikulua.- Kontuak ematea.-----

Urte bakoitzeko lehenengo sei hilabeteetan, Patronatuak Fundazioen Legearen 27. artikulua arabera frogatu beharko du Protektoratuaren aurrean bere kudeaketa lana Fundazioaren helburuekin bat etorri de la.-----

3. ATALA.- BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN HELBURUEN ALDE JARTZEKO ARAUAK.-----

32. Artikulua.- Diru-sarreraren eta administrazioko gastuen xedea.-----

1) Fundazioaren ondasunak zein errentak, zuzenean eta berehala, Fundazioaren helburuak burutzera bideratuko dira.

2) Fundazioak, ezarritako maiztasunaz, bere helburuetara egokitzen diren jarduerak programatuko ditu, eta horretarako, urtero prestazioen plangintza bat egin eta horiek burutu zein esleitzeko era adostuko da.-----



P 1049763 B

INSTRUMENTO
GOV. ECO

LANETA
ANTZASAILA
azken Erregistroa
BIZKAIA
GOV. ECO

3) Hiru urteko epean, Fundazioaren helburuetara bideratuko dira errenta garbien eta beste kontzeptuko edozein diru-sarreraren %70, beti ere dagozkien zergak kendu ostean. -----

Ondare zuzkidurako ekarpenek, eratze unekoak zein geroagokoak, ez dute baldintza hori bete behar. -----

Gainontzeko diru-sarrerak, fundazioaren eraketa uneko zuzkidura handitzera bideratuko dira, betiere administrazio gastuak kendu ostean. Gastu horiek ez dira inoiz %20 baino handiagoak izango, salbu eta Protektoratuak, Fundazioak era arrazoituan eskatuta, baimen berezi bat eman badu, indarrean dauden lege eta araudietako aginduetan/manamenduetan aurreikusitakoaren arabera. -----

IV. TITULUA.- ALDAKETA, BATEGITEA ETA DESEGITEA. -----

33. Artikulua.- Aldaketa. -----

Fundazioaren Patronatuak Estatutu hauen

aldaketa bultza dezake beti ere Fundazioaren
helburuak betetzeko egokiagoa bada. Aldaketarako
akordioa hartzeko, Patronatuko kideen 2/3en aldeko
botoa behar da gutxienez.-----

34. Artikulua.- Bategitea.-----

Patronatuak gainera, beste erakunde bat edo
batzuekin bat egitea adostu dezake, betiere
Fundazioaren helburuak behar bezala kontuan hartzen
badira. horretarako, Patronatuko kideen 2/3en
aldeko botoa behar da gutxienez.-----

35. Artikulua.- Desegitea.-----

Fundazioa honakoetan desegingo da:-----

1) Estatutu hauetan aurreikusitako kasu
berezian, Euskal Herriak erabateko burujabetza
lortu duenean.-----


2) Kode Zibilaren 39. artikuluan edo beste Lege
batzuetan aurreikusitako kasuren bat gertatzen
denean.-----

3) Desegitea, bategite prozesu baten emaitza
denean.-----

4) Ebazpen judizial sendo batengatik
disolbatzen denean.-----

36. Artikulua.- Desegiteko prozedura.-----

Aurreko artikuluko 1. Eta 2. Puntuetan



P 1049762 B



aurreikusitako kasuetan, fundazioa desegiteak
Patronatuaren akordioa eta Protektoratuaren
berrespena beharko du. -----

Desegiteko akordioa betiere arrazoitua izango
da, ondarearen egoera eta likidazio programa zein
den adieraziz. -----

Gobernu organoaren akordiorik ez badago, edo
Protektoratuak berrezten ez badu, fundazioa
desegiteko arrazoizko ebazpena, hala dagokienean,
Protektoratuak edo eratzailleek, euren gehiengoak
hala erabakita, exijitu dezakete. -----

Desegite akordioa edo, dagokienean, arraoizko
ebazpen judiziala, Fundazioen Erregistroan
inskribatuko da. -----

37. Artikulua.- Likidazioa. -----

Fundazioen likidaziotik eratorritako ondasun
eta eskubideak, eskrituran fundatzaileek
adierazitako borondateari jarraituz, Patronatuak,
Fundazioaren espirituaren arabera, erabakitako
ineteres orokorreko helburuetara bideratuko dira.

2

1975-10-10
GIL-RO

JUSTIZIA LAN

GIL-ARTE

EUSKAL

DEPA

Aldiz, Patronatuak erabakirik hartzen ez badu, Protektortuak, desegindakoaren antzeko helburuetarako beste fundazio edo erakundeetara bideratuko ditu, batez ere egoitza udalerri berean edo, ezin bada, Lurralde Historiko berean dutenetara.-----

V. TITULUA.- PROTEKTORATUAZ ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROAZ.-----

38. Artikulua.- Protektortuaz.-----

Fundazio hau Protektortuaren tutoretza, aholkularitza eta kontrolaren pean uzten da, indarrean dauden legeek aurreikusitakoaren arabera.

39. Artikulua.- Fundazioen erregistroaz.-----

Fundazioaren eraketa eta, legez beharrezkoa denean, bere egintza edo negozio juridiko guztiak, Legearen araberrako eskumena duen Fundazioen Erregistroan inskribatuko dira.-----

VI. TITULUA.- FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ARAUBIDE JURIDIKOA.-----

40. Artikulua.- Bazkidetutako Laguntzaileak.--

Eratze eskritura izenpetu ostean, fundaziora bazkietu ahal izango dira, bazkietutako laguntzaile izaeraz, Fundazioaren helburuak lortzen lagundu dezaketen jarduerak edo ekarpen lana egiten



REPUBBLICA ITALIANA
GOVERNO REGIONALE

JUSTITIA, LAN ETA
GL. REE GUCAN ZA SAILA
E.

Alpatutako izarea duten bazkidetze eskaerak Patronatuko kideen gehiengo absolutuak onartu beharko ditu. Finkatuko dute, halaber, eskatzaileek ordaindu beharreko diru kopurua. Laguntzaile horiek, Patronatuan parte hartu ahal izango dute azken honek hala erabakitzen badu. -----

Patronatuak ohorezko laguntzaile izendatu beharko ditu Fundazioaren helburuak lortzen nabarmen ahalegindu edo ahalegintzen diren pertsona fisiko edo juridikoak. -----

The page contains several handwritten elements:

- Top left: A large, stylized scribble resembling the number '20'.
- Top center: The word 'Jool' written and then heavily crossed out with multiple diagonal lines.
- Top right: The words 'Katie Sam' and 'Lalaka / Kuan' written across the top.
- Middle left: A large, complex scribble that appears to contain the word 'Gin'.
- Middle center: The words 'John Chao' written below a scribble.
- Middle right: A large, complex scribble that appears to contain the word 'John'.
- Bottom left: The number '15' written vertically.
- Bottom center: The word 'Harping' written and then crossed out with a diagonal line.
- Bottom right: The word 'Lion' written and then crossed out with a diagonal line.
- Far right: The word 'Lion' written again, partially obscured by a large scribble.